

## 2. AZTERKETARIA

### OROKORRA C1

Ongi menderatzen ditu hizkuntzaren hainbat alderdi, eta horrek aukera ematen dio gai orokor, akademiko, profesional eta aisiakoei buruz argi eta estilo egokian jarduteko formulazioa aukeratzeko, esan nahi duenari mugak jarri gabe.

2. azterketariak, nahiz eta hutsune batzuk izan, hizkuntza-maila zabala du. Gai da irakurri duen testuaren gaineko informazio nagusia emateko, eta, tarteka, ñabardura batzuk ere egiten ditu. Gai da adierazi nahi duena adierazteko, eta horretarako behar duen gramatikaren eta lexikoaren jabe ere bada. Gai da , besteak beste, deskribatzeko, ideiak berresateko, ondorioak ateratzeko, kausa-ondorio erlazioak adierazteko... Hala ere, hutsune txikiren bat edo beste badu eta zenbait azalpenetan zehaztasun falta nabari zaio (...urari buruz, uran munduan bizi den klub bat; ...ibaietan baztertu egin da zabor garbitze hau, hau da, mendietan gehiago lantzen da.).

2. azterketariak erakutsi du C1 maila baduela; hau da, gai da adierazi nahi duena mugarik gabe adierazteko.

### ZUZENTASUNA C1

Gramatika-zuzentasun handia du: akats gutxi egiten du, ez dira antzematen errazak eta, oro har, akatsa egin orduko zuzentzen du.

2. azterketariaren diskurtsoa, oro har, zuzena da. Akats bakan batzuk egiten baditu ere (*Marcelo Diaz, dala klub honen sortzailea; umeak konturatzeko gaur egun duten zaborra.*), ez dute komunikagarritasunean eragiten, eta, askotan, ahozko diskurtsoaren ondorio ere badira. Gainera, egindako akats gutxi horiek ez ditu zuzendu. Deklinabide-, aditz- eta egitura-mailan, akats larririk egin gabe jarduten du, eta doinu eta ahoskera txukunarekin mintzatzen da. Beraz, esan liteke 3. azterketariak C1 mailari dagokion gramatika-zuzentasuna erakutsi duela.

### JARIOA C1<sup>+</sup>

Jariorotasunez eta bat-batean jarduten du, ahaleginik ia egin gabe. Kontzeptualki zailak diren gaiekin bakarrik galtzen du jariorotasuna adierazpenetan.

Jario naturala du. Ez du eten luzerik egiten (*Urumean, Urumean, ee, Urumean egiten den lasterketa bat da*), eta zailtasunak saihestu eta oso modu naturalean aritzen da. Beraz, esan liteke C1<sup>+</sup> maila erakutsi duela. Izan ere, jariorotasunez eta bat-batean jarduten du, ahaleginik ia egin gabe. Kontzeptualki zailak diren gaiekin bakarrik galtzen du jariorotasuna adierazpenetan.

## **KOHERENTZIA C1**

Diskurtso argia, jariotasun handikoa eta ongi egituratua sortzen du, eta antolaketa-egiturak, lokailuak eta beste kohesio-mekanismo batzuk modu egokian erabiltzen ditu.

Diskurtsoa egoki antolatzen du. Ideien hurrenkera koherentea da, eta ondo lotzen ditu ideiak, noiz edo noiz ideien artean saltoak edo informazio-hutsuneak izan arren. Beraz, C1 mailakoa bada; izan ere, diskurtsoa ongi egituratuta dago, argia da eta kohesio-mekanismoak modu egokian erabiltzen ditu.

## **ELKARRERAGINA C1**

Diskurtsoaren funtzioetan eskura duen sailetik esaldi egokiak hautatzen ditu bere oharrak egiteko, hitza hartzeko edo hitzari eusteko, eta bere jarduera eta solaskidearena trebetasunez uztartzeko.

Egokitu zaion tesia egoki defendatzen du. Argudioak egoki janzten ditu, batzuetan arrazoiak emanez eta beste batzuetan adibideren bat edo pasadizoren bat baliatuz (*Etxean freskoa erosten da; adibidez, fruta erosten denean eta abar, momentuan erosi eta...; Puntu garrantzitsua iruditzen zait diruaren arazoa, gainera nere amak jantokian egiten du lan eta berak esanda...*).

Solaskidea aintzat hartzen du (*Ados nago zuk esan duzunarekin...*) eta haren hitzak erabiltzen ditu adostasuna edo desadostasuna adierazteko (*Bai, hortan guztiz ados nago, askotan denborak ez du laguntzen...*), nahiz eta hasieran batez ere bi solaskideen txandak luzeegiak izan, eta elkarrizketa baino gehiago bakarrizketa eman. Hala ere, 2. azterketariak C1 maila erakutsi du.